

# Eskubaloiairen hazia

Bera Bera taldeak eskubaloia eskola martxan jarri du. Hamabi urtetik gorako neskek parte har dezakete bertan. Elkarteko arduradunek taldearen oinarriak sendotu nahi dituzte ekimen honekin, etorkizunari begira.

**Raul Perez**

**b**era Bera taldeak Euskal Herriko lehen eskubaloia eskola martxan jarri du. Javier Blanco taldeko arduradunak adierazi digunez, «eskola hau antolatzeari ezinbestekoa zela ikusi genuen. Izan ere, ikastetxeetan neska gazte gehienek futbola aukeratzeko dute, etorkizuna askoz ilunagoa izan daitekeen arren. Beraz, emakumezkoen eskubaloia etorkizuna bermatzeko ekimen hau aurrera ateratzea erabaki dugu».

Blancoren esanetan, neskek ondo erantzun diote Bera Berako lagunen eskaintzari; «eskolak nahiko harrera ona



Bera-Berak egun duen mailari eusteko sortu du eskubaloia eskola.

izan du eta lehen hilebetean hogeita neskek izena eman dute». Klaseak emateko arduraren begirale agiritzen esku egongo da, Sboraren entrenatzaile errumaniarraren zuzendaritzapean. «Gure eskolarentzat oso garrantzitsua izango da Sboraren bezalako gizon bat izatea, Europako hainbat herrialdetan eskaintzak izanda, Euskal Herrira etortzea erabaki duelako. Izan ere, gure herrian kirol honek duen garrantzia jabetu da», diosku Javier Blancok. Horrez gain, eskubaloia taldeko arduradunak neskek entrenamenduklaseak eta txapeketak uzta ditzaten nahi dute, poliki-poliki eskarmentua har dezaten.

## Bidebietan eta Manteon

Eskubaloia eskola Manteo eta Bidebietako kiroldegietan egingo da astearteetan eta ostegunetan, 18.00etatik aurrera. Manteokoak Donostia erdialdeko neska hartuko ditu eta Bidebietakoan, berriz, Bidebieta, Pasaia, Oreta eta Irun aldeko neska ariko dira. Hamabi urtetik gorako neskek parte har dezakete eskola honetan eta izena emateko epea azaroaren 30ean amaituko da. Eskola berri honetako kideek ez dute ezer ordaindu behar izango, Kirol Txartela besterik ez baita eskatzen kiroldegietara sartu ahal izateko.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 943291292 zenbakira hots egin daiteke edo zuzenean Bera Berak Manteoko kiroldegian duen egoitzara jo.

## Lehen taldea erritmoa hartzen

Bestalde, Ohorezko Mailan aritzen den Bera Beraren taldeak liga hasi besterik ez du egin. Reyes Karrerek zuzentzen duen taldeak lau partidu jokatu ditu orain arte liga txapelketan: bi partidu irabazi dituzte, beste bat berdindu eta bestea galdu. Datorren igandean, hilak 22, Akaba Bera Berak lehen fase honetako areriorik zailena hartuko du Bidebietan, Valentziako Milar L'Elia alegia.

**Sboraren  
errumaniarrak  
zuzenduko  
du eskola**